

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea-barrena

DATA: 2017/11/14

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Auzokide bat kexu da arropa-edukiontzia zirikituaren dimentsioengatik manta, burko eta pakete handiak ez direla sartzen eta, gainera, batzuek atera egiten dutela arropa bertatik; beraz, eskatzen du txipdun edukiontzia jartzea.	Abisua eman zaio Mankomunitateari eta jakinarazi digu hori dela, momentuz, dagoen sistema.
Obrak	Bizilagun batek galdetu du ea noiz eraiki beha diren Jardíñetako 29-31-33 eta 35 zenbakietako igogailua.	Proiektua urte honetan egongo da idatzita eta obren exekuzioa aurrekontu-eskuragarritasunaren arabera egingo dira.
Obrak	Galdetu du ea noiz hobetu behar den Jardíñeta eta Arrateko errepidearen arteko pasealekua. Dioenez, eskailera maila pila bat daude leku horretan.	Datorren urtean, 2019an, idatziko da proiektu bat pasealekua hobetzeko.
Obrak	Auzokide batek salatu du Jardíñetara sartzeko zoladura, tartean El Cascoren eraikinaren ingurukoa, egoera txarrean dagoela.	Datorren 2019. urtean esku hartuko da inguru horretan.
Obrak	Kexu da Jardíñetara joateko egin behar den igogailua Aldatze aldera ematen duelako.	Kontsulta bat egin zitzaion auzokideei eta bi proposamen aurkeztu zitzaion; hauxe izan zen aukeratutako soluzioa.
Udaltzaingoa	Auzotar bat kexu da Jardíñeta 9 zk parean dagoen STOP seinalea ez dela errespetatzen. Kontzientziazio-kanpaina bat eskatu du eta zigor gehiago.	Baten bat ikusiz gero Stop-seinalea errespetatzen ez duena, salatu egiten da.
Zerbitzuak	Batek galdetu du zergatik erabaki zen Jardíñeta 4 eta 6 zenbakietako edukiontzien kokalekua aldatzea. Dioenez, bankuak estaltzen dituzte eta inguruan usain txarra dago.	Edukiontzi horien kokapena segurtasun arrazoi batengatik aldatu zen. Lehen, horietara iristeko, errepidea gurutzatu behar zen; Orain, berriz, espaloiatik joan daiteke eta, ondorioz, herritarrentzat edozein arrisku ekiditea lortu da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea-barrena

DATA: 2017/11/14

Saila	Laburpena	
Obrak	Bidebarrieta 21 zk.ko auzokide batek eskatu du argiak bateratu daitezen eta beste blokeetan dauden berdinak jar daitezen.	19 eta 21 atarietara iristeko arrapalen inguruko argiteria, azaroan hasiko diren arrapala-obrekin konponduko dira. Lorategiaren gunerako, aurrekontua eskatu da argiteria berrizteko, eta aurrekontua onartzeko zain gaude.
Obrak	Eskatu du baserritarrak Errebalera doazenean plazatxoak lorategi bihur dadila, orain dagoenarekin bat eginez.	Aztertuko da. Hala ere, uste dugu espazioaren gaur egungo konfigurazioa zuzena dela.
Zerbitzuak	Eskatu du egun Bidebarrieta 21 zk.ko lorategian dagoen ONCEko kioskoa kentzeko.	Errekerimendu bat bidali ostean Hirigintza sailatik, ONCE elkarteak baimena eskatu du kioskoa kentzeko. Lizentzia hori eman zaie dagoeneko eta epe laburrera kenduko dute.
Obrak	Bizilagun batek galdetu du ea noiz amaitu behar diren Errebaleko obrak.	Aurreikusita dago obrak 2019aren hasieran hasita eta 2020ko udarako amaitzea.
Hirigintza	Blas Etxeberria kaleko etorkizunaz galdetu du.	Transformazio Zentroa Errebal eraikinera lekuz aldatu ondoren (datorren urtean hasiko dira Errebaleko obrak), Blas Etxeberria kaleak berriz ere lehengo trazatua izango du. Eta egun kudeatzen ari den Estaziño unitatearen garapenarekin, kaleak Estaziñoraino jarraituko du.
Obrak	Galdetu du ea noiz erretiratu behar den Errebalen dagoen Iberdrolako etxola.	Aurreikusita dago 2020ko lehen seihilekoan, Errebaleko obrekin, ordezkatu egingo dela Merkatu kalean jarriko den lurazpiko batekin.
Hirigintza	Salatu du El Cascoren eraikinaren egoera txarra.	“El Casco” erabilerarik ez duen industria-eraikin bat da eta haren jabetzari dagokio segurtasun-baldintza egokietan mantentzea. Udalak behin baino gehiagotan egin dio errekerimendua inguruaren segurtasuna bermatzeko. Plan

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea-barrena

DATA: 2017/11/14

Saila	Laburpena	
		Nagusiak industria-eraikina eraistea eta haren ordeztzeak etxebizitzak eraikitzea aurreikusten du. Sustapen pribatuari dagokio hura aurrera eramatea.
Zerbitzuak	Eskatu du paper eta kartoi-bilketarako edukiontziek izan dezatela aho zabalagoa eta galdetu du ea posible ote litzatekeen edukiontzi bat jartzea elektro-tresna txikiak botatzeko.	Kexa hau Mankomunitatera bideratu da. Jakinarazi digute papera eta kartoiak botatzeko metalezko edukiontziak erosi direla, aho zabalagoarekin. Beharrezkoak diren tokietan jarriko dira eta, ondorioz, tokia zehazten bada, honen beharra aztertu eta, hala ikusten bada, bertan jarriko da. Bestalde, elektro-tresna txikiak botatzeko edukiontzia dagokionez, Mankomunitateak 3 puntu garbi erosi ditu eta hauen kokapena aztertzen ari da. Hala ere, bat zona altuan jarriko da, bestea ekialdean eta hirugarren bat erdigunean.
Udaltzaingoa	Portalea inguruan bigarren ilaran lagatzen dela autoa salatu du bizilagun batek.	Kontrolatzen da.
Zerbitzuak	Kexu da Txomoko parkean herdoil orban asko daudela-eta. Garbitzeko eskatu du.	Orbanak Corten altzairuak sortutakoak dira. Lurzorua ezin da garbitu preziozko makinarekin. Edozein kasutan, abisua eman zaio Mankomunitateari eskaera kontuan hartzeko eta makina ureztatzailea parketik sarri pasatzeko.
Udaltzaingoa	Galdetu du ea zein den gutxieneko baldintza garajeen ibiak emateko. Eskatu du araudia aldatzea.	Gaia aztertzen ari da.
Zerbitzuak	Auzotar batek salatu du argi gutxi dagoela Ibargain kalekatik Estazio kalera	Argi berriak jarri dira; beraz, argitasun falta konponduta geratu da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea-barrena

DATA: 2017/11/14

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Eskatu du Institutuko garajeen proiektua berriz ere aztertzeko.	Proiektu hau geldirik dago honen inguruko hausnarketak amaitu arte. Eraikin honi emango zaizkion erabilerak zehazten ari dira, DBH eta Batxilergoko ikasketen bateratze prozesuaren eta Hizkuntza Eskolaren toki aldaketa posiblearen arabera. Prozesu hau amaitzen denean, gai honekin jarraituko da.
Obrak	Auzokide batek salatu du Pagaegitik Jardieñetarako errepidea eta sarbideak egoera txarrean daudela. Hobetzea eskatu du.	Inguru horren hobekuntza aurreikusita dago, espaloi bat eraikita datorren 2019. urtean.
Udaltzaingoa	Auzotar batek dio ezinezkoa dela Jardieñeta inguruan aparkatzea, Hezkuntza Eskola dela-eta.	Hizkuntza Eskolako ikasleek eskubidea dute Jardieñeta kaleko plaza libreetan aparkatzeko.
Zerbitzuak	Auzotar batek dio Errebaletik Jardieñetarako eskailera mekaniko zatien eskaileraburuan, ur-isuri likatsu bat dagoela erregistro-kaxa ireki baten ondoan. Eskatu du egoera konpontzea.	Eremua aztertu ostean, ikusi da arazo hori eroritzen den ur kopuru handiak eragin duela, lurra jaso ezin duena. Arazo honi irtenbidea emateko modu hobereana aztertzen ari da.
Zerbitzuak	Jardieñeta ingurua gehiago garbitzea eskatu du.	Mankomunitateak jakinarazi duenaren arabera, eremu hau ia egunero garbitzen da.
Obrak	Bidebarrietako auzotar batek eskatu du asfaltatua hobetzea 33 eta 39 zenbakien artean. Dioenez, estoldak gero eta baxuago daude.	Aurtengo 2018. urtean asfaltatu da.
Zerbitzuak	Edukiontzi marroiak hobetzea eskatu du. Dioenez, deserosoak dira.	Erosoagoak diren beste sistema batzuk aztertzen ari dira.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea-barrena

DATA: 2017/11/14

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Galdetu du ea nola jakinarazi behar zaien 50 urtetik gorako eraikinen jabeei EITren kanpainaz. Dioenez, Jardinetan eraikin asko daude egoera horretan.	Eusko Jaurlaritzak hainbat informazio-kanpaina egin ditu eta interesa duen edozein Komunitatek hirigintzara jo dezake bere obligazioen berri jasotzeko. Ez dago aurreikusita, epe laburrera, errekerimendu-kanpainarik egitea; hasieran zenbateraino bete den aztertuko da, gero horren arabera jokatzeko.
Obrak	Eskatu du Jardinetako 20 eta 22 zenbakien arteko eskailerak eraikitzea. Esan du zulo bat laga zela horretarako eta oraindik ez dela egin.	Ez dago aurreikusita inguru horretan eskailera mekanikoak egitea. Jardinetarako irisgarritasuna hobetu egingo da Pagaegi eta Jardineta arteko espaloi bat eraikita.
Obrak	Salatu du Jardineta aldeko estolderia hondoratzen ari dela.	Konpondu egingo da orain egiten ari den igogailuaren obrarekin.
Zerbitzuak	Eskatu du arbolak inauteko eta 4-6-8 zenbakien parteko berdegunea hobetzeko.	Lan hau 2018ko martxoaren 22an egin zen.
Udaltzaingoa	Batek eskatu du Jardineta 4 eta 6 zenbakien partean, oinezkoen pasabide goratu bat egitea.	4 eta 6 zenbakien parean ez dago espaloirik. 4 zenbakiak Aldatze kalearekin egiten duen mugan, eskailera mekanikoen ondoan, hor bai dagoela espaloia. Inguru horri egingo dio erreferentzia?
Udaltzaingoa	Bizilagun batek salatu du ibilgailuak saihebidetako tunelaren irteera inguruan lagatzen direla aparkatuta.	Gaia kontrolatzen da arriskurik egon ez dadin.
Hirigintza	Jardinetako auzotar batek eskatu du aisialdi gune bat egitea lorategi eta bankuekin, prentsako kiosko zaharraren ondoan dagoen teilatu lauan.	Oinezkoen irisgarritasuna hobetu egingo da, Pagaegi kaletik Jardinetaraino, eta horrek kioskoaren inguruari eragingo dio. Dena den, ondoko espazioa, itxita dagoena, jabetza pribatukoa da eta El Cascoren unitatearen barruan dago.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea-barrena

DATA: 2017/11/14

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Auzotar batek galdetu du ea nola dagoen Mertzedarietako proiektua eta eskatu du etxabeak txukuntzea.	Mercedarietako ikastetxe zaharraren lokaletan, gaur egun erabilerarik gabe, egon zen bere garaian etxebizitzak egiteko proiektu bat, akordio faltagatik gauzatu ez zena. Jabetzari dagokio lokalak erabilgai jartzea. Baxuak txukun mantentzea kontu pribatu bat da.
Alkatetza	Batek jakin nahi du ea noiz zabalduko den NANaren bulegoa Eibarren.	NANA eta Pasaportearen tramitatze bulegoa 2018ko urtarrilaren 10ean inauguratu zen eta hurrengo egunean hasi zen martxan.
Zerbitzuak	Estaziñoko auzokide batek eskatu du Ibarkurutzeko iturritik ura atera dadila atzera ere.	Konpondu egin dira pedaleko kanilak eta iturria garbitu egin da ekainaren 13 eta 14an. Ez zerion urik hornidurak moztu zirelako, kanilak hondatuta egoteagatik.
Zerbitzuak	Auzokide bat kexu da Bidebarrietako lorategietan gastu handia egin delako eta, dioenez, loreak ez dira maiztasun berarekin aldatzen Estaziño inguruan. Gastu hori ekitatiboagoa izatea eskatu du.	Lorategi hauek Zona 10 elkartetik hala eskatzeagatik jarri zuren, honen ordezkariak zainduko zituztelako konpromisoarekin. Bete ez denez, Udal Lantaldeak hainbat mantentze lan egin behar izan ditu ekimen desberdinetan.
Alkatetza	Salatu du jaiegunetako ekitaldiak, hala nola Erregeetako kabalgata edo kalejirak, erdigunera eramaten direla eta jada ez direla Estaziñotik pasatzen.	Beti, Udalak antolatzen dituen ekimenen antolaketa zehazten denean, Eibarko gunen desberdinen arteko oreka bilatzen da, egiten diren ibilbideak Untzaga eta Urkizu artean mugatuz gehienbat. Horrela egiten da, adibidez, Erregeetako kabalgatarekin, Lizarrako dultzaineroekin edota danborradarekin.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea-barrena

DATA: 2017/11/14

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Auzokide batek galdetu du autobus-geltokia Matsariara eramateari buruz.	2016ko abenduan, herritarren parte-hartze prozesu bat egin zen kalean egindako inkesten bidez, autobus-geltokia aldatzeko edo Egogainen lagatzeko erabakiari buruz. Egindako 312 inkestetatik, parte hartu zuten % 99k ez zuten nahi geltokia Matxariara lekuz aldatzea; hortaz, ez da gaur egungo kokapena aldatuko.
Hirigintza	Auzotar baten iritziz, Estaziñoren paraleloa izango den kaleak autopilaketa eragin dezake Kiosko inguruan.	Estaziño Unitateko Hirigintza Proiektua aurkeztu ondoren, zirkulazioen noranzkoak aztertuko dira; are gehiago, kioskoaren inguruan trafikoa murriztu liteke. Dena den, inguruko ibilgailuen fluxua ez da areagotzen (saihesbidetik eta Bittor Sarasketatik datozenak).
Zerbitzuak	Auzotar batek piletarako edukiontzi bat eskatu du Estaziño kalean.	Mankomunitateari abisatu ostean, datozen egunotan jarriko da.
Alkatetza	Jardiñetako auzotar batek eskatu du OTA sistema jartzea kale horretan, eta baita bertakoentzako aparkatze-txartel sistema jartzea ere.	Honen inguruko hausnarketak burutzen ari dira Trafiko Batzordean. Hasieratik, txandakako eta doako OTA sistema defendatu da. Hala ere, udal talde politikoek proposatu dute kategoria desberdinetan eta honen arabera kostu desberdinetan oinarritutako sistema.
Udaltzaingoa	Auzotar batek salatu du bide-segurtasun arazo bat dagoela 18 eta 20 zenbakietan. Dioenez, ez dago seinalizaziorik eta zebra biderik.	Jardiñeta bada, 20 eta 22 zenbakien artean oinezkoen pasabide bat dago. Ibargaiñi egiten badio erreferentzia, Jardiñeta kaleko 18 eta 20 zenbakien atzealdea, proiektua bat dago Jardiñetarako irisgarritasuna hobetzeko, eta hor inguruan oinezkoen pasabide bat planteatzen da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea-barrena

DATA: 2017/11/14

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Auzotar batek salatu du ez dela errespetatzen Ibargaineko STOP seinalea.	Baten bat ikusiz gero Stop-seinalea errespetatzen ez duena, salatu egiten da.
Obrak	Jardiñetako irisgarritasuna hobetzea eskatu du auzotar batek.	Eraikitzen ari da Julian Etxeberria eta Jardiñeta arteko igogailua eta, datorren 2019an, Pagaegi-Jardiñeta zatia berriztu egingo da espaloi bat eraikita.
Udaltzaingoa	Oinezkoentzako bi pasabide goratu egitea eskatu du, 9 eta 1-3 zenbakietan.	Pasabide goratu bat egin zen 9 eta 14 zenbakien artean.
Zerbitzuak	Auzotar batek eskatu du edukiontzi gris berriaren funtzionamendua azaltzea.	Sistema berri hay abian jarri zenean, informazio epe bat ireki zen, hainbat hitzaldirekin eta informazio giden banaketarin, besteak beste. Hala ere, edozein zalantza izanez gero, Mankomunitatearekin jar zaitezke harremanetan eta bertan emango zaizkizu azalpen guztiak.
Udaltzaingoa	Salatu du jendeak lerro horien gainean aparkatzen duela Jardiñeta inguruan. Zaintzeko eskatu du.	Zaindu egiten da behar bezala ez aparkatzea.
Udaltzaingoa	Auzotar bat kexu da txakurren txizak eta kakak direla-eta. Garbitasun eta kontrol gehiago eskatzen du.	Txakurren txizak ez daude Ordenantzan araututa, eta, hortaz, ez dira urraketa. Ikusiz gero pertsona batek ez dituela kakak batzen, identifikatu egiten da eta zehapen-espeditente bat zabaltzen da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea-barrena

DATA: 2017/11/14

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Oinezkoen pasabidea egiteko eskatu du Matsaria 2 zk parean.	Inguru hau oinezkoen lehentasun-gunea da, 30 Zona; hortaz, ez dira beharrezkoak oinezkoen pasabideak.
Udaltzaingoa	Galdetu du auzoetako mugikortasun planari buruz.	Eibarko Udalak hiriko Plan Estratégico 2025 dokumentua dauka eta, bertan, mugikortasunari dagokionez hiriak dituen erronkak zehazten dira. Ondorengo estekan dago ikusgai: https://www.eibar.eus/es/ayuntamiento/objetivos-y-proyectos/plan-estrategico-de-eibar-2025/PlanEstrategicoEibar2025informeSep2016.pdf
Udaltzaingoa	Auzotar batek dio Errebaletik ibiltzea ez dela erraza, bereziki 18:00 eta 20:00 artean; izan ere, ez da udaltzainik egoten trafikoa zuzentzeko eta hiru semaforo-zikloetatik pasatu behar da eta beti daude gorri.	Ordutegi horretan ibiltzen dira ibilgailu gehien, hortaz, zirkulazio-abiadura murriztu egiten da. Normalean, semaforoak koordinatuta egoten dira.
Zerbitzuak	Estaziño kaleko argiak hobetzea eskatu du auzotar batek. Dioenez, oso ilun dago.	Eremuan egin den ikerketaren arabera, argiteria nibel baxuenetik oso gainean dago eta, ondorioz, ez da beharrezkotzat jotzen hau osatzea.
Udaltzaingoa	Zirkulazio-norantza aldatzea eskatu du asteburuetan, hirigunea oinezkoentzako denean, San Agustín eta Julián Etxeberriaren artean.	Abantailak eta oztopoak aztertuko dira.
Zerbitzuak	Bidebarrieta 15 zk.ko bizilagun bat kexu da lorategietan usain sarkorra dagoelako, kautxu-usaina edo, eta baldosak belztuta daudela dio.	Baldosak 2018 urteko urrian garbitu ziren eta, usainari dagokionez, jardinarean loreena da.
Zerbitzuak	Salatu du Errebaleko espaloiak zikinak daudela eta hobeto garbitzeko eskatu du.	Mankomunitateak jakinarazi du eremu hau egunero garbitzen dela.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea-barrena

DATA: 2017/11/14

Saila

Laburpena

Zerbitzuak

Eskatu du Pagaegiko horma inguruko sasiak garbitzea eta inaustea.

Eremua 2018 urteko urtarrilean garbitu zen eta mantentze lanak egiten dira.

Hirigintza

Auzotar batek galdetu du ea zer egin behar den Arragueta kalean, 11 zk.tik behera. Eraikin abandonatu asko daudela dio.

Plan Nagusiak Arragueta kaleko eraikin bakoitiak, zeinak lerrokaduretatik kanpo dauden, etxebizitza-unitate batean jasotzen ditu eta kalea zabaltzea aurreikusten du. Unitate zaila da kudeatzen eta aztertzen ari dira.